

EUSKAL HERRIKO MUSIKAGILEEN ELKARTE-
ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- Irabazi asmorik gabeko Errenteriako (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIKO MISIKAGILEEN ELKARTEA, AS/B/07298/1998 erregistro-zenbakia duena, 1997ko irailaren 20an eratu zen eta 1998ko apirilaren 1ean eman zuen izena erregistroan. Elkartearen estatutuak aldatu egin dira elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, 2004ko urriaren 21ean egindako Ezohiko Batzar Nagusiak hala erabakita.

Elkarte honek honako araubidea izango du: Elkarteei buruzko Legea, estatutu hauek (legearekin kontraesanean ez badaude), elkartearen gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak (legearen eta/edo estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen xedapenak (azken hauek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen helburua garai guztietako euskal musika sustatzea eta bultzatzea da, arreta berezia eskainiz gaur egun sortzen denari.

Helburu horiek lortzeko honako ekintza hauek eramango dira aurrera, legerian ezarritako baldintzak bete ondoren:

Kontzertuak, kultura-trukeak, sormen-lehiaketak, hitzaldiak, mahai-inguruak, ikastaroak, argitalpenak, diskoak argitaratu, eta abar, eta elkartearen helburuen eta xedeen mesedetan elkartearen kideen alde garatzen diren bestelako jarduerak kultural eta sozialak.

Aurreko atalean deskribatutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere helburuak betetzeko, honako hauek egin ahal izango ditu:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduerak ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, edozein titulu bidez, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egin.
- Era guztietako ekintzak burutu, betiere legeekin edo bere estatutuekin bat etorrira.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Elkarteen helbide nagusia honako hau izango da: Alfonso XI kalea, 2., 20.100, Errenteria (Gipuzkoa)

Elkarteak, horretaz gain, beste egoitza batzuk izan ditzake Autonomia Erkidegoan Batzar Orokorrek horrela erabakiz gero. Elkartearen egoitza soziala eta gainerako egoitzaren bat tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza Batzordeak hartuko du, eta berak jakinaraziko dio helbide berria Elkarteen Erregistroari.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Elkarteen ekintzak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu dira nagusiki.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteak izaera iraunkorra izango du. Ezohiko Batzar Orokorrek hala erabakita baino ezingo da desegin, VI. kapituluaren esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoien batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izango dira, eta aniztasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarriko eskubidearen gaineko edozein alderdi betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA

6. artikulua.- Kide anitzeko honako organo hauek izango dute elkartearen gobernuaren eta administrazioaren ardura:

- Bazkideen Batzar Orokorra; organo gorena izango da.
- Zuzendaritza Batzordea; kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra izango da.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak. Honako hauek izango dira Batzar Orokorraren eskumenak:

- a) Elkartearen jardura-plan orokorra onestea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onestea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onestea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzea.
- e) Kuota arruntak nahiz aparteko kuotak ezartzea.
- f) Estatutuak aldatzea.
- g) Elkartea desegitea.
- h) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietako batzuk uztea.
- i) Ondasunak erabiltzea edo besterentzea.
- j) Ordezkaritza-organotako kideen ordainsariak adostea, hala dagokionean.
- k) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilerak eta ezohiko bilerak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorraren ohiko bilera gutxienez urtean behin deituko da, laugarren hiruhilekoan izango da eta 7. artikuluko a), b) eta c) letretan zehaztutako erabakiak hartuko dira.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen % 30ek eskatuta. Bilera eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gai hauek aztertzeke eta erabakitzeke bilera egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzea.
- b) Elkartea desegitea.

11. artikulua.- Batzar Orokorrerako deialdiak idatziz egingo dira, eta bilera egingo den tokia, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik lehenengo deialdiko batzarra egiteko jarritako egunaren artean gutxienez hamabost egun izan beharko dira. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua adieraz daitezke; dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordubeteko tarte utziko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian baliozki eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertarutzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak bertaratuen nahiz ordezkatuena gehiengo sinplez hartuko dira, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Hala ere, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua (baiezko botoak balioko botoen erdia baino gehiago badira) beharko dute elkartea desegiteari, estatutuak aldatzeari, ondasunen antolamenduari edo besterentzeari eta ordezkaritza-organoko kideen ordainketei buruzko erabakiek.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren gain utz dezakete euren ordezkotza Batzar Orokorrean parte hartzeko. Ordezkotza hori idatziz egingo da, eta Batzarreko idazkariari emango zaio bilera egin baino 24 ordu lehenago gutxienez. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkotza beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidal dezakete.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko dituen organoa da, Batzar Orokorraren xedapenei eta zuzentzauei jarraituz. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa. Zuzendaritza Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Bokala
- Bokala

Gutxienez urtean sei aldiz elkartuko dira eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarrian edo, aldizka, 6 aldiz joaten ez bada eta hutsegiteak behar bezala arrazoitzen ez baditu, dagokion kargua utzi egin beharko du.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, 4 urterako izango dira hark berariaz ezeztatu ezean eta behin baino gehiagotan hautatu ahal izango dira. Kargudunak denak batera edo txandan berrituko dira.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, honako baldintza hauek beteko dira ezinbestean:

- a) Adinez nagusi izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea eta indarrean dagoen legerian ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuaren esaten den moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkide izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kargua, Batzar Orokorrak izendatu ostean, kargua onartutakoan edo karguaz jabetutakoan hartuko da.

Batzar Orokorrak, hala dagokionean, Zuzendaritza Batzordeko kideen dietak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimisioa aurkezten dutenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Batzar Orokorrak kargugabetzea erabakitzen badu, estatutu hauetako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Heriotza

Kargua uzteko arrazoia a) letran aurreikusitakoa bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute hurrengo batzar orokorra egin arte. Batzar orokor horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Kargua uzteko arrazoia b), c), d) eta e) letretan aurreikusitakoa bada, Zuzendaritza Batzordeak berak izendatuko du norbait behin-behingo hutsik gelditutako kargua betetzeko, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezesten bada, dagokion izendapena egingo da.

Batzorde honen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.

- b) Elkarateak gauzatuko dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastuen eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoerak Batzar Orokorrari aurkeztea onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretarako gai-zerrenda egitea, eta ohiko nahiz ezohiko Batzar Orokorraren deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamenei eta iradokizunei erantzutea eta dagozkien neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeen arabera.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira bere eskumen esklusiboak.

21. artikulua.- Lehendakariak, edo, hala dagokionean, Lehendakariordetzak, erabakitzen duen bakoitzean egingo ditu bilerak Zuzendaritza Batzordeak, bai bere ekimenez, bai batzordekideren batek eskatuta. Bileraren buru lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, lehendakariordea, eta biak falta badira batzordekiderik zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliokoak izateko, bertaratzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, batzordekideen erdiek gutxienez egon beharko dute batzarrean.

Idazkariak bileretako aktak egingo ditu eta dagokien liburuan jasoko ditu idatziz.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOA

LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Lehendakariak elkartearen legezko ordezkariak hartzen ditu. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak beteko ditu eta bietako buru izango da.

23. artikulua.- Honako ahalmen hauek izango ditu lehendakariak:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egitea; bilerak bukatutzat ematea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, lehentasun-botoaz erabakitzea.
- b) Elkaratearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, eta, aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Baliozki erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sor daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeari hurrengo bilkuran horien berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira haren eskumen esklusiboak.

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio eta, lehendakariak aldi baterako ezintasuna duenean, ordezkatu egingo du. Era berean, lehendakariak berariaz emandako ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartearen sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, Bazkideen Erregistro Liburuaz eta fitxategiaz arduratzea eta Akta Liburuaz idaztea eta zaintzea.

Era berean, elkartearen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezkeen arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuaren eta agiriaren edukia egiaztatuz eta zuzendaritza-batzordearen hautaketari eta elkartearen egoitza-aldaketei buruzko beharrezko jakinarazpenak dagozkion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako sarreraren eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztuko ditu, eta honek, aldi berean, Batzar Orokorraren aurrean, onar ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARPEN BIDEAK, BALDINTZAK, ETA MAILAK

27. artikulua.- Elkartekide izan nahi duten eta jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten guztiak izan daitezke elkarteko bazkide.
- Pertsona fisikoak, adinez nagusi direnak edo adingabeko emantzipatuak, Euskal Herrian jaio edo bizi direnak
 - Erakundeak
 - Musika-elkarteak
 - Musika garaikidearen esparruan diharduten pertsonak
28. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta lehendakariari bidaliko zaio. Lehendakariak horren berri Zuzendaritza Batzordeari emango dio, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu edo ez. Dena den, gorako errekurtsua jarri ahal izango da Batzar Orokorraren aurrean.
29. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen erabakiz, elkarrekin ohorezko bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkarrekin helburuak betetzeko bertaratu ezin diren pertsonak. Bazkide horiek ohorezkoak dira soilik, eta ez dira, beraz, legezko bazkide, ez dute elkarteko zuzendaritzako eta administrazioko gobernu-organismoetan parte hartzeko eskubiderik, ezta inolako betebeharririk ere.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Elkartekide guztiak honako eskubide hauek dituzte:
- 1) Elkarrekin buruzko Legearen eta estatutuen kontrako erabaki eta jarduerak aurkatzeko, aurkatzeko erabakiaren edukia jakin edo jakiteko aukera izan duen egunetik hasi eta 40 egun naturaleko epean.
 - 2) Elkarrekin gobernu- eta ordezkari-organismoen osaketari, elkarrekin kontu-egoerari eta haren jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
 - 3) Elkarteko beste bazkideak nor diren, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta elkarrekin ekintzen garapenaren berri uneoro jakitea.
 - 4) Batzar orokorretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
 - 5) Elkarrekin estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautagai nahiz hautesle izatea.
 - 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkide-zerrendan agertzea, eta elkarrekin ikurra, baldin badu, behintzat, erabiltzea.
 - 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 - 8) Elkarrekin talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideek erabiltzeko dauden gauzez gozatu ahal izatea (egoitza, liburutegiak,...) Zuzendaritza Batzordeak kasu bakoitzean erabakitako moduan.
 - 9) Zigor-neurriak hartu baino lehen, idatziz adieraziko duena kontuan hartzeko eskubidea du, baita neurri horiek hartzeko izan diren arrazoiei buruzko azalpenak jasotzeko ere. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarri daitezke soilik.
31. artikulua.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:
- a) Elkarrekin helburuak gauzatzeko lankidetzak aktibo ematea.
 - b) Zuzendaritza Batzordeak ezarritako kuotak ordaintzea gastuei aurre egin ahal izateko.
 - c) Estatutu hauek eta elkarrekin zuzendaritza-organoei baliozki hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

ZIGOR ARAUBIDEA

32. artikulua.- Estatutuek edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik bazkideak zigortu egin ahal izango ditu Zuzendaritza Batzordeak.

Gutxienez 15 egunez eta gehienez hilabetez eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzerainokoa izan daiteke zigorra, betiere 34. artikulutik 37. artikulura bitartekoetan, biak barne, jasotakoaren arabera.

Ondorio horietarako, lehendakariak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egiteko erabakia hartu ahal izango du. Ikerketa horiek Idazkaritzak egingo ditu, eta Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik interesatuak adierazitakoa entzungo du.

Erabakiaren arrazoiak beti emango dira eta aurkako errekurtsua jarri ahal izango zaio Batzar Orokorraren aurrean, 30.1 artikuluan zehaztutako ekintzen kalterik gabe.

BAZKIDETZA GALTZEA

33. artikulua.- Bazkidetza honako kasu hauetan galduko da:
1. Heriotza (edo desegitea, pertsona juridikoen kasuan).
 2. Bazkideak borondatez irtetea erabakitzen duenean.
 3. Zuzendaritza Batzordeak erabakitako zigorra dela-eta, honako kasu hauetan: Estatutu hauetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.
34. artikulua.- Bazkideren bat 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinetan bada, Lehendakariak Idazkaritzari agin diezaioke, gertaeren berri izatearren, aurretiazko eginbide batzuk egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, Lehendakariak jarduerak bertan behera uztea edota zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.
35. artikulua.- 33.3 artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinengatik zigor-espedientea irekitzen bada, idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio dagokionari leporatzen zaizkion salaketan berri emateko. Salaketa horiei erantzuteko, bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu 15 eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilerako gai-zerrendan sartuko da gaia, eta bertan hartuko da dagokion erabakia. Horretarako batzordekideen erdia gehi bateko quoruma beharko da.
- Elkartetik kanporatzeko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko Batzar Orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren barruan, errekurtsu hori nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzaraziko zaio.
- Kanporatzeko espedientea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesatuaren idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.
36. artikulua.- Kanporatze-erabakia –betiere arrazoiak emanda– dagokionari jakinaraziko zaio eta horrek, dagokion eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa bada.
37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan –borondatez berak hala erabaki duelako edo zigorra ezarri zaiolako– bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUBIDEA

38. artikulua.- Elkaratek ez dauka sortze-ondarerik.
39. artikulua.- Elkaratek, bere ekintzak gauzatzeko, honako diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Zuzendaritza Batzordeak ezarritako sarrera-kuotak.

- b) Zuzendaritza Batzordeak erabakitako aldizkako kuotak.
- c) Elkarateak dauzkan ondasunetatik eta dagozkion eskubideetatik ateratzen dituen ekoizpenak, baita legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, ondareak eta dohaintzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontuan hartuta, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako ekintza bidezkoek dakartzaten irabaziak, betiere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkarate- eta aurrekontu-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 28an itxiko da.

Elkarateak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatzean, lortzen dituen irabaziak haren helburuak betetzeko baino ez dira erabiliko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ezta haien ezkontideen artean edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen edo senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea hartara deitutako bazkideen Batzar Orokorrean erabaki behar da, bai bere ekimenez, bai bazkideen **% 30ek** eskatuta. Nolanahi ere, bi kasuetan Zuzendaritza Batzordeak lantalde bat osatuko du hiru bazkideekin estatutuak aldatzeko proiektua idazteko. Proiektua Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da eta berak jarriko du proiektua bukatzeko epea ere.
41. artikulua.- Aldaketa-proiektua adierazitako epean idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilerako gai-zerrendan sartuko du. Batzordeak egitasmoa onetsi egingo du edo lantaldeari itzuliko dio berriz azter dezan.
- Proiektua onetsiko balitz, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrearen hurrengo bilerako gai-zerrendan sartzea erabakiko du, edo horretarako propio deitutako du Batzar Orokorra.
42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera estatutuak aldatzeko proposatzen den testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamen horiek ezohiko Batzar Orokorri aurkeztuko zaizkio baldin eta batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.
- Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egingo dira, eta beste testu-aukera bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistroan sartzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA GIZARTE ONDAREAREN APLIKAZIOA

43. artikulua.- Elkartea honako arrazoi hauengatik desegino da:
1. Bazkideek hala nahi dutelako. Asmo hori horretarako deitutako Batzar Orokorrean adieraziko da eta bertan dauden gehienek aldeko botoak jaso beharko ditu.
 2. Kode Zibileko 39. artikuluan ezarritako arrazoiengatik.
 3. Epaileak hala erabakita.
44. artikulua.- Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko hiru batzordekideek osatuko dute eta funtsen kargu egingo da.
- Bazkideekiko eta hirugarren pertsonetikiko betebeharrak sozialak bete ondoren, geratzen den gizarte-ondarea, geratzen bada, behintzat, antzeko ezaugarriak

dituen edo onegintzazko helburuak dituen elkarte bati edo musika-elkarte bati emango zaio.

AZKEN XEDAPENA.- Batzar Orokorrak barne-araubidea onetsi ahal izango du estatutu hauek garatzeko; araubideak inola ere ezingo ditu estatutuetako aginduak aldatu.